

<https://www.ikas.eus/spip.php?article1349>



Otsoa

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Olerkia - Olerkiak - Luixa Giltzu - Otsoa -



Linean argitaratua data honetan: 2011(e)ko urtarrilaren 20a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak

https://www.ikas.eus/index.php?action=image_responsive&img=IMG/png/otsoa-3.png&taille=300&1619618628

Otsoa, u u u u
ilargiari kantatzen,
uhuka diot aspalditik
nautela sufriarazten.
Horregatik gaurko haurretan
lagunak ditut xerkatzen,
ea biharko belaunaldiek
noizbait nauten defenditzen !

Otsoa, u u u u
bizi naiz oihan beltzean,
gero eta gordeago
izkina hertsu hotzean,
haragijale egin ninduten
natura legeek sortzean,
jendeak ere ez al du jaten
nik bezala gosetzean ?

Otsoa, u u u u
lantxurda ilunen kea,
aski urtez pairatu dut
kondena eta nekea.
Agian jendeak irekiko du
noizbait bihotzeko atea,
usaia aldatuz hauts dadin
ene malurren katea.

Luixa Giltzu 2009ko Eguberri